

BERTSOLARIEN PENTSAMENTU-RITMOA

Manuel Lekuona

SARRERA

Literaturan, Poema zer dan, edozeñek daki.

Bertso batzuek egiten dute Poema bat.

Errenkada Poetiko batzuek egiten dute Bertso bat (Estrofa bat).

Silaba batzuek materialki, eta oin batzuek formalki, egiten dute Errenkada Poetiko bat.

Oiñak, edota bi silabakoak dira (Oin Espondaikoak) edota iru silabakoak (Oin Daktilikoak).

Poema baten oiñak, elkarren ondoren datozela, Ritmoa egiten dute.

Silabazko eta oiñezko ritmoa, Ritmo Fonetikoa da Ritmo materiala. Bañan silaba eta oin oien artean ibilli oi da beste Ritmo bat ere, espirituzkoa: Pentsamentuzko Ritmoa; Pentsamentuak, elkarren ondoren datozela egiten duten ritmoa, ixuria, katea.

Ori da, guk orain azertu nai degun gaia. *Ritmo del Pensamiento*. Bertsolariaren Pentsamentuen Ritmoa. Nola kateatzen ditu bertsolariak bere pentsamentuak, bere bertsoetan? nundik nora ibilli oi da bertsolariaren pentsamentuen aria, bertsoa dariola kantari ari danean?

Pentsamentuaren ritmoa. Pentsamentuzko ritmoa.

Or, gure, gaurko gaia.

I

KOPLA ZAARRA

Nolako ritmoan dabil bertsolariaren pentsamena, Kopla Zaarretan?

Kopla zaarrak, “ritmo del pensamiento” esan dezakegun Pentsamentuaren “ibillia”, oso ibilli berezi eta tipikoa du.

Teorian explikatu baño praktikan errezago konprendi ditekkean gauza. Jarri ditzagun bizpairu eredu.

Eder zeruan izarra;
errekaldian lizarra...
Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorrizko bizarra.

Beste bat:

Zapata txuri paperez,
eudi denian bat-ere ez...
Nagusi Jauna, esan bezaigu
asiko beran edo ez?

Beste bat:

Au aiziaren epela!
Airian dabil orbela...
Etxe ontako jende leialak,
Gabon Jainkuak diyela.

Beste bat:

Astoak on dik oloa;
idiak, arto-lastoa...
Gabon-jaietan edan dezagun,
Petiri, ekar ardoa.

Eta beste bat:

Goiko mendian edurra dago;
errekaldean izotza...
Neu zugandik libre nago-ta,
pozez daukat biotza.

Eta beste bat:

Larrosatxoak bost orri daukaz,
klabeliñiak amabi...
Gure seintxo gura dabenak
eskatu beio amari.

Ola da Kopla Zaarren barruko pentsamentuen ritmoa.

Ageri danez, Kopla Zaarrak, tipikoki, bi erdi ditu. Eta bion artean eten bat, eten aundi bat, metrikako *cesura* esan ditekeana baño aundiagoa. Pentsamenaren etena.

Lenengo erdia, txokante egiten da bigarrenarekin. Bigarrenak esaten du, koplan “esan nai dana”. Lenengoak “ez du zer-ikusirik” bigarrenarekin.

Gaiari begira, bigarren gaia “intentzioskoa” dan bezela, lenengoa betinere politagoa, apañagoa izan oi da, grazia geiagokoa.

Larrosatxoak bost orri daukaz;
klabeliñiak amabi...
Gure seintxua gura dabenak
eskatu beio amari.

Orain baño leen ikutu izan det nik, Kopla Zaarren bi erdien arteko zer-ikusikontu au; eta onela nion nik orduan (Ikus “Opera omnia” - I - “Aozko Literatura” - pág. 15):

“Koplaren lenengo erdian, arako gauza polit bat esaten da, koplak dakarren gauzarekin zer-ikusirik ez duan gauza polit bat; eta bigarren erdian, koplari esan nai dana, bere arian datorrena”.

Pentsamenaren ritmoari gatzizkiola, ritmo ori Koplaetan pentsamentu polit batetik beste pentsamentu arrunt batera joaten da; itxuraz zer-ikusirik ez duan beste batera.

Bañan gauza ondo sakondu ezkerro, arkitzen bait da zer-ikusi zerbait, bion artean. Onela diot nik nere Liburuan:

“Au aizearen epela!
Airean dabil orbela...
Etxe ontako jende leiala,
gabon Jainkoak diela.

“Aizearen epeletik asten da kopla; eta ari ortan jarraitzen du erdiraño. Bañan bigarren erdian beste gauza bat, leenarekin zer-ikusirik ez duan beste gauza bat esaten digu

Etxe ontako jende leialak,
gabon Jainkoak diela.

Orixe da “koplaren etena” esaten deguna, erderaz “cesura” ez baño “incoherencia” obeto esango litzakena; gure Kopla Zaarrak “incoherentes” dirala, alegia.

“Bañan itxuraz bakarrik bait da ola; barru-barruan —diot nik— ba da or “zer-ikusi” bat, lokera bat, lokarri bat; lokera ori beste Literaturaetan ez dala oitua, ezik; Literatura Idatzietan oitua ez, alegia”.

Eta onela jarraitzen det:

“Izan ere, Literatura Idatzietan “lokerak” lokera “buruzkoak” izan oi dira; lokera “horatianak” esango genituzkeanak, lokera lilosofikoak... Itz bitan, “Lojika Horatiana” esango gendukeana”.

Bañan, orra nola jarraizen dedan —nola bukatzen dedan nere arrazoi-bidea:

“Filosofia, Jakinduria, buru-gauza da. Poesia, Olerkia, buruzkoa ez baño, irudimen ta biotz-gauza. Eta sentimenak eta Irudimenak ere ba dute beren Lojika. Eta orixe da, ain xuxen, gure Koplaen Lojika; ez Horatio’ren Lojika, bañan bai Poesi-Lojika”.

Nolanai dala, — eta gure Ritmoaren arirako — olakoxe pausutan — pausu saltariñetan — ibilli oi dirala gure Kopla Zaarrak, arrazoi utsezko bideetatik kanporako beren bide tipikoetan. Olakoxea dala gure Kopla Zaa-rretan Pentsamenaren Ritmoa.

II

IZTUETA: OIN ETENA

Iztueta'k euskal-bertsolaritzan gauza berri bat sortu zuan “oi etena” esan ditekena; erderazko “pie quebrado”. Eta “Oin etenarekin” batean pentsamentuzko ritmo berri bat: “sorpresazko ritmoa” esan dezakeguna.

Berriz ere, teoriak gerorako utzita, praktikazko bizpauru eredu ipiñiko ditugu: “Iztuetak Kontzezi'ri”ren izenez atera zuan bertso-paperatik artuta. Orra:

Maite bat maitatzen det, maitagarria;
begia ederra du(ta) guztiz argia.

Daukat urruti;
bañan ezin kendu det buruti
aren itxura...

Saldu al baliteke pisura,
urrearen truke
nork erosi faltako ez luke
nork erosi faltako ez luke.

Ogeita lau leguaz nago aparte;
bitartean ba dauzkat milloi bat ate,
guztiak itxirik,

Nai arren, ezin egon ixillik
beti negarrez
nere maite-maitearen galdez
ote dan bizi

biotz nere-nereko Kontzezi,
biotz nere-nereko Kontzezi.

Egunez argi gutxi, gauean illun,
kotsuelorik ez da neretzat iñun
maitea gabe

egin ote nadin aren jabe
oroituzean

zenbat pena nere biotzean
ditut igaro!

maite det eta ez da milagro,
maite det eta ez da milago.

Ai! au bakardeadea eta tristura!
 nere biotz gaxoa ezin piztu da
 ain dago illa
 beti dabil kontsuelo billa
 bere artean
 banengo maitearen aldean
 ordutxo biko
 pena guziak lirake ilko,
 pena guziak lirake ilko.

ZERTAN DATZAN

Iztuetaren bertsoan, Prosodia eta Sintaxisa elkarrekin burruka dabilta. Ortik sortzen da sorpresa, Iztueta'ren bertsoak entzutean edo irakurtzean.

Metrika-lege jatorrean, estantzia poetiko batek, pentsamen bat biltzen du beti bere baitan.

Estantzia, distiko bat baldin bada, distikoaren bi errenkadak bukatzean, bukatzen da baita pentsamena ere. Lege jatorrez Prosodiaren barruan dabil Sintaxisa. — Edota, alderantzira, Sintaxis'en barruan Prosodia: biok “a dos”.

Berdin baita, Estantzia poetikoa Zortziko oso bat baldin bada, Zortzikoaren barruan bilduko da pentsamen sintaktikoa.

Iztueta'k, ordea, bere “Kontzezi'ren Poeman ostikoka bezala austen du Lege ori. Estantzia bukatzean, pentsamena ere bukatu dala uste degunean, Iztueta'ren pentsamenak aurrera jarraitzen du: estantziaren azkeneko itza estantzi berri baten asiera egiñaz.

“Kontzezi”ren estantziak —bertso-troxoak— prosodiazki distikoak dira; bi errenkadatan bildu bear luteke beren pentsamena; bañan ez; Iztueta'rentzat distikoaren bukaera, distiko berri baten asiera bilakatzen da, entzulearen sorpresa aundi batean...

Lenengo distikoa onela da:

Maite bat maitatzen det maitagarria;
 begia ederra du (ta) guztiz argia.

Distiko biribilla.
 Urrengo distikoak onela dio:

Daukat urruti;
 bañan ezin kendu det buruti...

Eta ortan bukatzen da distikoa; bañan ez da ortan bukatzen Iztueta'ren sintagma; “kendu” berboaren konplemena dator ondotik —baita bear ereta—: pie quebrado bat, alegia, rima berri batean:

aren itxura.

Bañan ortan ere ez bait da bukatzen Iztueta'ren distikoa; rima berriak bultzata, zaldibitarrak bere neurri-neurriko pentsamen bat eraxten dio “itxura” orri:

(... itxura)
 saldu al baliteke pisura.

Ori bai; gauzari erremate biurri bat emanez:

urreen truke
 nork erosi faltako ez luke.

Garbi ageri danez, Iztueta'ren Poema ontan, joku aundia, “oin eten” *pie quebrado* dalakoak egiten du.

Oin etenak sorpresa beti berekin du. Bañan ez da bat-ere txikiagoa Iztueta'ren injenioak trantze oietan bere okurrentziakin ematen diguna:

Aren itxura
 saldu al baliteke pisura
 urreen truke
 nork erosi faltako ez luke.

Irakurri dezagun dana dan bezela, azken-aldiz:

Maite bat maitatu det maitagarria
 begia ederra du (ta) guztiz argia.

Daukat urruti;
 bañan ezin kendu det buruti
 aren itxura,
 saldu al baliteke pisura
 urreen truke
 nork erosi faltako ez luke,
 nork erosi faltako ez luke.

Pentsamenaren ritmo-kontuan Iztueta'ren bide beretik —oin erren eta sorpresa-bidetik— ibilli zana, Bilintx izan zan. Iztueta bere Poema “Kontzezi'rirekin” eta Bilintx bere beste Poema famatu “Juana Bixenta Olabe”rekin, Biok beren egunetako doñu berriekin; Bilintx “Urta Papito”ren doñuan, eta Iztueta “Txurrupinplan”en doñuan. Biok, oin errenak dituzten doñuak bait dira.

Begira Bilintx'en "Juana Bixenta Olabe"ren lenengo kanta:

—Nagusi Jauna!
 auxen da lana!
 Amak bialtzen nau berorengana.
 —Ai! bialiko bazinduzke maiz!
 Zu ikusita kontsolatzen naiz.
 Sinista zazu,
 oso txoraturik nadukazu,
 orren polita nola zeran zu.

—Amak esan dit,
 urteko errenta
 dirurik pagatzeko etzuen-ta
 ia egingo digun mesere
 illabetian geienez ere
 itxogitia
 bada ziurtu dala ematia
 pasa baño len illabetia.

Asieran bi oin eten egiten ditu; eta erdian beste oin eten bat, beti bezela, oin etenez sorpresa polit bat pentsamen-ritmoari egíñez.

III

XENPELAR

(*Constructio praegnans*)

Irugarren eredia, "Bertsolariaren pentsamenaren ritmo"-kontuan, Xenpelar izango degu; Xenpelar bere "Betroia"ren Poemarekin. "*Constructio praegnans*" dalakoaren eredu.

Beti bezela, teorietan sartu baño leen, texto eredia ikusiko degu. Betroiaren Poema. Onela dio:

Ostegun jua danian amabost, Ernani'n,
 betroi baten tratua genduen egin.
 Saltzalle Inazio, erostuna Fermin;
 emeretzi ezkutu genion eragin.
 Sabelian du min;
 iñork ase ezin;
 artuari muzin,
 ez du nai edozin...
 Atzetik bear dittik zazpi medezin.

Begi bat itsua du, adar biyak motzak;
 krisellua dirudi aren kokotzak.

Ikaratutzen gaitu ezturen otsak;
burlaka ari zaizka Elizatik ontzak.

Sano dauzka ortzak,
agiñak zorrotzak;
tristura biyotzak,
dantzan dabil otzak...

Ez diyo onik egin leku arrotzak.

Gure betroyak ez du auko loalia;
egunero nai ezik ogi-alia.

Ala-re ezin jaso lepoko joalia;
burua makurtuta zerbaiten galdia...

Orren zaldalia
ez da debaldia;
gauz onen zalia,
bizkotxo-jalia...

malezi asko duen arrantzalia.

Informe txarrak dauzka batroyak auzotik:

espalda ateria, urgun besotik,
eztula ta antsiya ikullo-zokotik,
desterratuko nuke nik nere bototik:

amarra lepotik,
grilluak orpotik,
makillaz ondotik
jotzen det gogotik...

Etzayo ajolarik ezerengatik.

Jorraketan:

Azken-bertso au entzutean, alako azkar-ibillera estu bat sentitzen degu.

Azkar-sentimen ori. Poemaren elipsis batzuetatik sortzen da or. Bertsoaren barruan aditz berbo batzuek kendu dira. Eta kendutako aditzaren konplemenak, beste aditz bati -aditz arrotz bati- erantsi zaizkio. Egoera orri Gramatikoak *constructio praegnans* esan oi diote.

Olako *constructio praegnans'ak* hebreoen artean asko erabili izan dira. Bañan baita euskeraz ere. Xenpelar'en Poema au testigu.

Onela dio:

“Informe txarrak dauzka betroyak auzotik”

eta beste gabe (“diote” bat-edo tartean ipiñi gabe, alegia, elipsis agiñaz) informeak diotena soil-soillik esaten digu:

“espalda ateria (duala, eta) urgun besotik “dagola” eta are geiago

“eztula ta antsiya (dariola) ikullu-zokotik”.

Lau aditz oiek eliditurik (“diote”, “duala”, “dagola”, “dariola”) jarraitzen du bere laster-bidean.

Bañan bereala beste berbo bat

“Desterratuko nuke nik nere bototik”

eta, ondoren, desterruaren modua:

“amarra lepotik (duala) grilluak orpotik (dituala)”

bañan bi jerundio oiek (“duala”, “dituala”) berritz ere elidituaz, aurrera jarraitzen du; eza, aizkenik

“makillaz ondotik jotzen det gogotik”.

esaten digu Bertsolariak, elipsisak alde batera utzita.

Ikusten danaz, dana azkar-azkar, bederatzai puntuko bertso batean bost elipsis egiñaz. Benetan, “constructio praegnans”, “ernari-egoera”.

Xenpelar'en bertsoetan, “Betroyaren” Poemaz gañera, beste askotan ere arki ditezke olako “Constructio praegnans”ak.

Askotan olako elipsisak berboaren laguntzallearenak izan oi dira. Ikus Xenpelar beraren “Azken Juizio”ko Poemaren bertso-ale au:

Itxasoa su, eguzkiya illun,
illargiya odolak artu;
lurrak ikara, eta gañera,
ibai guziyak agortu;
munduko gauza baliyosyak
erre ta ikatz biurtu...
Pekatariyak, umil gaitezen;
ba da zerekin bildurtu.

Elipsisak bete ezkeru, Poema ola litzake:

Ixasoa su(tuko DA) eguzkiya illundu(ko DA)
illargiya odolak artu(ko DU)
lurrak ikara (egingo DU) eta gañera
ibai guziyak agortu(ko DIRA)
munduko gauza baliyosyak
erre(ko DIRA) ta ikatz-biurtu(ko DIRA)
Pekatariyak, umil gaitezen;
ba da zerekin bildurtu:

Aditz osoak eliditu ere, bertsolari onak egin oi dituzte, grazia aundi batekin. Begira “Amalau eriyotz”en Poeman irakurtzen dan au:

Ikusi zitunian senarra ta alaba,
Katalina gaxuak ai! ura negarra!

Ez bazuan jarri nai bestiak bezala,
dirua nun zeguan “esan berala!”...
Ongi ba zekiyela dirurik etzala.

“Ez bazuan jarri nai” orren aurretik, “esan” bat dago eliditua:

(Esan niyon): “Ez bazuan jarri nai” bestiak bezala, dirua nun zeguan “esan berala”.

(Erantzun zidan): “Ongi ba nekiyela dirurik etzala”.

Ageri danez, bi elisioren ondorengo fruitu, beste “*Constructio praegnans*” nabarmen-nabarmen bat: “Esan” eta “erantzun”.

Bukatzeko, analiza dezagun Poemaren lenengo bertsoa:

Ostegun jua danian amabost, Ernani’n,
betroi baten tratua genduan egin.
Saltzalle Inazio, erostuna Fermin:
emeretzi ezkutu genion eragin.
Sabelian du min;
iñork ase ezin;
artuari muzin;
ez da nai edozin...
Atzetik bear dittik zazpi medezin.

Metrikaz, bederatzi puntu ditu. Sintaxissaz ere, bederatzi sintagma. Eta Erretorikaz, lau elipsis, beste ainbeste “*Constructio praegnans*”-ekin.

Lenengo elipsis, “Saltzalle Inazio (izan zan)”; bigarrena, “erostuna, Fermin (izan zan)”; irugarrena, “iñork ase ezin (du)”; eta laugarrena “artuari muzin (egiten dio)”...

Bederatzi sintagmatan, lau elipsis, eta lau *constructio praegnans*: “Egoera benetan ernaria”.

IV ZAPIRAIN

Ari degun bideari jarraituaz —Bertsolarien Pentsamen-ritmoaren Estudioari jarraituaz— laugarren Bertsolari-eredu bat aukeratuko degu orain: eta Eredu ori, Zapirain izango da, Zapirain Errenteriarra. Eta aukeratuko diogun Bertso-salla, bere emaztearen eriotzean kantatu zuana izango da. Eta bi gauza señalatuko ditugu aren lanean:

Bertsoaren bukaerako indarra; eta

Bertsoaren gerriko pentsamenaren urduria, saltarintasuna.

Bi gauza, bertsolari guztiak beren bertsoetan jalki oi dituztenak, bañan bat aukeratu bear-ta, guri oso egoki derizkiguenak, Zapirain'enak.

Bukaerako indar-izaera ori, guk latinezko esaera batekin aditzera ematen degu grafikoki: *in cauda venenum* = “isatsean edena, benenoa”; esaeraren sorrera jendearen uste ta iritzi oker batetik badator ere; sugeari benenoa isatsean sortzen zaiola, alegia; dana dala, bertsoaren bukaera indarsuagoa egiteko oitura erregla, *in cauda* esaera orren bidez norbaitek aditzera eman izan ornen-du-ta, erabilli dezagun guk ere.

Bertsoaren gerriko ibilli urduriaren izaera adierazteko, berriz, beste imajiñatxo bat erabilli izan degu guk orain baño leen: pelotariaren “aire ta bote” esan oi dana: aire ta bote, ezker-eskubi, aurre ta atze; pelotariaren imajiña, egiazki egokia bait da, orain esan nai deguna adierazteko...

Orra, orain, gure Zapirain'en Poema, bizi, bizkorra. Komentarioak gero egingo ditugu.

Kantak jarriko dittut, artzen badet betik,
neri gertatu zaidan motibuagatik.
Eztet esango egiten etzidala faltik
—biyotza kontsolatu ezin penetatik—
iya atera nintzan nere onetatik.

Nere sentimentuak bear dittut esan;
—suerte txarrerako mundu ontan izan—
gripek arrapatuta emaztia il zan
—errezatutzen diot al dedana Elizan—
bederatzi umekin alargundu nintzan.

Semerikan zarrenak amalau bar urte;
ta gaztienak, berriz, iru illabete.
Oyek gobernatutzen lana ba daukate
—nik emaztia illa ez det gutxi kalte—
prueba egin dutenak, sinistuko dute.

Ez naiz gezurtiya, ez kristau burlosua.
Alargun gelditzia ai! zer erasua!
Bizi-modu-klase au ez da erosua.
Urrikalgarri eta frango penosua
ume txiki askokin dagon gusasua!

Jendiari emango diyot aditzia.
Orain probatuko det zer dan bizitzia;
kasikan obe luke kristauak iltzia,

ez ume txikiyakin orla gelditzia...
Ai! gauza tristia da alargundutzia!

Ai! zenbat gizon ta andre gazte familiko
au goguan dutela ez dira ibilliko;
orla bakartutzia iñork ez du naiko...
Gu biyok bizitzia etzan konbeniko;
bestela Jaungoikuak etzinduan ilko.

Esango det, jendiak nai badu aditu,
beratzi ume nola zaizkidan gelditu...
Lengo bizi-moduan nai nuke segitu...
Pazientzi onakin pasako banitu,
erremediyo danak Jainkuak ba ditu.

Jaungoikuak ba dauka guziyen kontua...
Bederatzi umekin nintzan sonatua...
Deskalabro onekin nago penatua...
Familiya or daukat dana banatua,
emaziaren faltan desordenatua.

Kontatuko det gure munduko atzena
—atentziyua ba det orduko itzena—
Ni naiz obligatua arkitzen naizena;
errezatutzen diyot al dedan maizena;
bizi naizela etzait aztuko izena.

Sekula ez det artu ainbesteko penik,
ezta ez derizkiyot artuko dedanik...
Barkaziyua eskatu, beragana juanik,
azkeneko partidana bi musu emanik...
Geyago itz-egiten ez daukagu lanik.

Bertsuak jarri ditut nere borondatez.
Portunosua ez naiz izandu suertez.
Au biyotzeko pena kontsuelo partez,
esanaz: “Il bearra ementxe det nai-tez;
nitzaz errezatzia akordatu zaitez”.

Beti pena bat daukat, au gogoratzian,
ateratzen ez dana nere biyotzian,
nola deitu ninduen ark eriyotzian:
azkeneko enkargu auxen eman zidan,
errezatu nezala artaz oroitzian.

Ez goaz, explikamen aundirik egitera. Bertso bakoitza da naiko eredu argi, bai bukaeran, bai bertsoaren gerrian, barruan.

Bertsoaren barruko ibilliak, benetan dira muturi ta ibilperak. Poema osoaren bigarren bertsoa batez ere artu liteke olako urduritasunaren eredutzat:

Nere sentimentuak bear dittut esan
—suerte txarrerako mundu ontan izan—
gripe arrapatuta emaztia il zan
—errezatutzen diyot al dedana Elizan—
bederatzi umekin alargundu nintzan.

Bertso bakoitzaren bukaeran egiten diran pentsakizunak, berriz, benetan dira nabarmen eta bereziak, batzuek pentsakizun filosofiko-teolojikoak, besteak bestelako arrazoi biribil dirdiratsuak.

Ikus:

Esango det, jendeak nai badu aditu
beratzi ume nola zaizkidan gelditu...
Lengo bizimoduan nai nuke segitu...
Pazientzi onakin pasako banitu,
erremediyo danak Jainkuak ba ditu.

Beste tonika batean baño, bukaera biribildunak dira, Bilintx'en beste bi auk:

Mando baten gañean Domingo Kanpaña;
etzijoak utsikan mando orren gaña;
azpiyan dijoana mandoa bek, baño
gañekoa ere ba dek azpikoa aña;
MANDO BATEN GANEAN, BESTEALAJAÑA!

Edo beste au:

—Dama polita zera, polita guztiz, ai!
Bañan, alare zaude, oraindak ezkongai.
Ezken gaitezen biyok. Esan zaidazu “bai”...
—Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin? Ja-jai!

Oiek “tono mayorrekoak” dira. Bañan “tono menorrekoak” ere bertsolari onak olaxe egiten bait dituzte: bertsoaren bukaeran arrazoi indartsuak dituztenak alegia: *in cauda venenum...*

Begira Txirritaren batzuek, 1876'gn urtean Furoen eriotzari ernanirrak ospatuak:

Zeruko Aita: barka itzazu
pekatarien pausuak:

Kantabria'ko deskalabruak
 dirade lastimosuak.
 Arbola eder bat dala mediyo
 jartzera nua bertsuak;
 MILLA URTEAN MANTENDU GAITU
 LAU PROBINTZIA OSUAK.

Arbola dago igartua, ta
 euskaldunak gaude triste.
 Ez det pentsatzen pasatu danik
 munduan beste onenbeste;
 orain gertatu zitekeanik
 ere ez nuen nik uste;
 MILLA URTEAN SEGITU DUTEN
 FUERUAK KENDU DITUZTE.

Bi oietan ederki betetzen bait da, laugarren Bertso-Ereduan arkitu nai degun, Bertsoaren bukaerako errenkada indarsua eta Bertsoaren erdiko “ibilli urduritsua”. Erdia urduri; bukaera ostiko.